



“Jarrera sexistak sahiestuz hasi behar du genero indarkeriaren aurkako borroka, eta horretan eskolak zeresan handia du.

Marian Moreno Llaneza

“Twins”. Marianne von Werefkin. 1909

EDITORIAL

COEDUCAR: EDUCAR PARA LA IGUALDAD Y PARA PREVENIR LA VIOLENCIA MACHISTA

Marian Moreno Llaneza, experta en coeducación, señala que **la lucha contra la violencia de género debe iniciarse desde el rechazo a las actitudes sexistas**, y subraya **la importancia del papel de la escuela** en ello.

Nuestro sistema educativo va avanzando hacia la igualdad, si bien, carece aún de una implantación sistemática generalizada de la coeducación que permita **hacer frente a los estereotipos sexistas** que sustentan la violencia machista y las desigualdades.

Tal y como señala el “Plan para la Coeducación y prevención de la violencia de género en el sistema educativo”, existe la

creencia de que la igualdad de mujeres y hombres se ha alcanzado en el ámbito educativo. El espejismo se ve fortalecido en la medida en que los resultados de las chicas son superiores, su rendimiento académico en todas las etapas es mejor, su tasa de fracaso y abandono escolar es inferior y su acceso a las carreras reconocidas tradicionalmente como masculinas es cada vez mayor. Sin embargo las desigualdades siguen existiendo: las relaciones entre niñas y niños, chicas y chicos siguen siendo asimétricas y se dan numerosas situaciones basadas en el abuso; las capacidades, habilidades y proyectos de vida siguen estando ligadas al género; en los contenidos curriculares las aportaciones de las mujeres no están visibilizadas, y el sexismo y la violencia de

género son realidades que están incidiendo en el desarrollo de la vida de adolescentes y jóvenes.

En este número de Tanttaka **queremos reflexionar acerca de la importancia de la coeducación, es decir, de la educación para la igualdad como propuesta imprescindible para eliminar las desigualdades de mujeres y hombres y para prevenir la violencia machista.** Para ello, recogemos las aportaciones de una experta en la materia, y os mostramos estudios y también algunas acciones que se están llevando a cabo en el ámbito educativo y que sin duda contribuyen al avance hacia una sociedad más justa, libre e igualitaria para todas y todos.

“Hezkidetzaren feminismoaren alaba da”

MAKE IRIGOYEN PERURENA

IRAKASLEA BIGARREN HEZKUNTZAN ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO EHUKO MASTERREAN. AURTEN EHUK ESKAINITAKO HEZKIDETZAN ESKU HARTZEN ON LINE IKASTARO OSAGARRIA DISEINATU ETA KUDEATZEN ARI DEN TALDEKO KIDEA DA.

Zertaz ari gara hezkidetzaz ari garenean?

Hezkidetzaren feminismoaren alaba da eta hezkuntza-eremuan gertatzen den guztia betaurreko moreen bitartez begiratzen du.

Betaurreko more horiei esker, hezkidetzak hezkuntza-sisteman emakume eta gizonen arteko ezberdinkeriak detektatu eta horiek gaintzeko hobekuntza-proposamenak egiten ditu. Mari Jose Urruzolak esaten zuen bezala *“Eskola mistoak, berdintasunaren lilurapean, maskulinoa baino ez den eredu berregin du, aldi berean neskek behartuz, eredu hau poliki-poliki barnera dezaten”*.

Hezkidetzan jardutea prozesu kontziente, luze eta konplexua da, *Martxoak 8* edo *Azaroak 25* egunetako eta horrelako ekimenez harago doana: ikasle bakoitzaren garapen osoa bilatzen du, berdina da zein diren haren sexua, generoa, jatorria, ezaugarri fisiko edo psikikoak.

Horretarako, **hezkidetzak zalantzan jartzen ditu sexu-genero estereotipoak, horien bidez inposaturiko rol sexistek jendearen garapena mugatzen baitute eta hierarkiak sortu.**

HEZKIDETZAK IKASLE GUZTIAK, NESKAK ZEIN MUTILAK, AHALDUNDU EGITEN DITU, ETA ESKUDUN IZATEKO BIDEAN LAGUNDU, HAIEN BIZITZA-PROIEKTU PERTSONALA ERATZEKO, modu autonomoan esparru publikoan eta pribatuan, etxekoan, aritzeko, harreman osasuntsuak eraikitzeke eta sentimendu eta emozioak era egokian kudeatzeko.

Zein dira gaur egungo hezkidetzaren erronkak?

Azken urte hauetan, jendartearen berdintasuna ia lortutako kontua dela zabaldu da. Hezkidetzak, hasteko, hezkuntzako komunitate-bideen artean ideia faltsu horren aurka sentsibilizatzen jarraitu behar du, eguneroko kontuak baitira oraindik ere halakoak: nesken zuzenbidea eta mutilen zuzenbidea, koloreak/arropak zein jostailu/jolas eta joko



ezberdinen banaketak irauten du, baita espazioen okupazio ezberdina ere (patioetan, adibidez, mutilak erdigunean eta neskek bazterretan); aukera akademiko estereotipatuak (mutilak teknikoetara, neskek zaintzara eta heziketa humanistikoetara); androzentrismoa nagusi da curriculumean (emakumeen errepresentazioaren eta historian zehar eginiko ekarpenen ikusezintasuna) eta askotan sexistak erabiltzen diren baliabideak (ipuinak, irudiak, hizkuntza, ikus-entzunezkoak...).

Beste alde batetik, gaur egungo **feminismoek dituzten erronken inguruan,** hezkuntzak badu zer esanik. Gurekin bizi diren hainbat **herrialdeetatik etortitako emakumeen kulturek, ikuskerek eta bizimoduak lortu dute hainbat kontu birplanteatzea.** Gure inguru hurbilean azken urte hauetan **LGBTIQ¹ errealitate askotarikoak presentzia hartzen ari dira eta hezkuntzak ezin du beste alde-ara begiratu.**

Jarraitzeko, **hezkidetzak berdintasunean haztea eta hezea zer den aldarrikatzen jarraitu behar du, baita horretarako ezinbestekoak diren ekimen hezitzaileak sustatzen ere.** Zein dira ikasle bakoitzak herritar berdinkidea izateko garatu beharreko konpetentziak? Nola lortu aniztasun askotarikoa

bistaratu eta hierarkiarik gabe errekonozitu eta bizitzea? Nola lortu guztion inplikazio aktiboaren zaintza-lanetan eta arduretzen?

Eta, azkenik, elkarbizitza- eta jendarteratze-prozesuan gaur egungo ikasle sozializazioan hain garrantzitsuak diren **eremu birtual berrietan indar egiten eta ekarpen hezkidetzailleak eskaintzen hasi behar du sexismorik gabeko internet eta sare sozialak eraikitzen laguntzeko.**

Aurreko guztia lortzeko, **ERAGILE HEZITZAILEEN ARTEAN, IRAKASLEEN ETA FAMILIEN ARTEAN PRESTAKUNTZA ETA LANKIDETZA-SAREAK SORTzea DA INDARRAK BILDU ETA OPTIMIZATZEKO BIDERIK APROPOSENA.**

Hezkidetzak zer paper du emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioan?


Ezinbestekoa. Datuek etengabe erakusten jarraitzen duten moduan, emakumeen kontrako indarkeria arazo sozial eta publiko larria da eta, ondorioz, **prebentzioarako estrategia hezitzaileek nahitaezko laguntza eskaintzen dute.** Hezkuntza *hezkidetzaillea* sustatzean emakumeen kontrako indarkeria eta indarkeria matxista motak aipatzeaz gain, identifikatzeko pausoak ere ematen dira. Izebergaren goiko puntako indarkeriak bai, baina azpialdekoak ere bai. **Hezkidetzak maitasun erromantikoaren mitoak eta tranpak deseraikitzen laguntzen du, baita maitasun toxikoak gaintzeko gakoak landu ere.**

NESKAK ZEIN MUTILAK BERTINTASUNEAN HEZTEAN, GUZTIEN ARTEAN TRATU ONAK SUSTATZEAN, IDENTITATE ASKOTARIKOAK ETA EZ ESTEREOTIPATUAK DUINTASUNEZ ETA MAILA BEREAN ERAKUSTEAN, INDARKERIAK BERE LEKUA GALTZEN DU, INDARKERIAREN NATURALIZAZIOA DESAKTIBATZEN LAGUNTZEN DA.

Horrela, kontziente garen neurrian, emakumeen kontrako indarkeria prebentzeko edo agertzen denean lehenbailehen identifikatu eta errotik ateratzeko bideak finkatzen dira.

¹ Sigla horiek kolektiboki izendatzen dituzte lesbiko, gay, bisexual, trans, intersexual, queer-ak. +-k barneratzen ditu horien guztien artean geratzen den beste edozein identitate.

“GUÍA PARA INTEGRAR LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN EL CURRÍCULUM”



El Departamento de Educación de Política Lingüística y Cultura en colaboración con Emakunde ha elaborado una **“Guía para la incorporación de la perspectiva de género en el currículum y en la actividad docente de las enseñanzas de Régimen Especial y de Formación Profesional”**.

La Guía tiene como objetivo aportar **criterios, pautas y recursos para incorporar la perspectiva de género en la intervención educativa y específicamente en el desarrollo del currículum.**

El material se dirige fundamentalmente al profesorado de las enseñanzas **de Régimen Especial y de Formación Profesional** y contiene **unidades didácticas** para trabajar contenidos de igualdad en los módulos más orientados a la inserción de las alumnas y alumnos en el mercado laboral. Es decir, el módulo de **Formación y Orientación laboral (FOL)** y el módulo de **Empresa e Iniciativa Emprendedora (EIE)**.

La guía fue presentada al profesorado de Formación Profesional y Enseñanzas de Régimen Especial el pasado mes y está disponible en la web del Departamento, en la Dirección de Formación y Aprendizaje.

ZUREA DA HITZA!

Zure ustez eskolan, familian... neskak eta mutilak berdintasunean hezten ditugu?

Eskolan ahaleginak egiten dira, baina, beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, berdintasunaren aldeko saiakera horiek maila formalean gelditzen dira sarri, eta susmoa dut gutxi batzuk direla gaiari ganoraz heltzen dioten ikastetxeak. Baina ibili, badabilta.



*Mikel Osoro
Hizkuntza Plangintzako teknikaria*

Familiaz, zer esan? Balioen transmisioan duen garrantzia funtsezkoa da, eta neska-mutilei egotzen zaizkien rol ezberdinak gurasoengandik seme-alabengana igarotzen dira era “naturalegian”. Zer ikusi eta zer irakatsi, huraxe ikasi. Nire ustez, berdintasunetik gutxi.

Aurrerapauso handiak eman ditugu berdintasunean hezteko. Hezkuntzangero eta sentsibilitate handiagoa daukagu, baliabideak askotarikoak dira eta agente desberdinen prestakuntza zabaltzen ari da. Senideen artean kolokan daude arduen banaketa, erantzukizunak eta rolak. Hala ere, asko daukagu egiteko, erronka be-



*Cristina Elorza
ISEI-IVE-eko teknikaria*

riak sortu dira eta eztabaidak hedatzen dira. Genero berdintasunaren enborrak adar asko ditu: hezkidetza, afektu eta sexuen hezkuntza, kulturartekotasuna eta abar. Guztioi dagokigu parekotasuna lortzea, identitate desberdinak errespetatzea, biolentziak baztertzea eta gizarte justuagoa eraikitzea.

ACEA Eurydice, (2010). “Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa”.

Ba al dakizu?

SEXISMO EN LOS LIBROS DE TEXTO Y MATERIALES DIDÁCTICOS.

La Agencia Ejecutiva en el Ámbito Educativo y Cultural (ACEA Eurydice, la red Europea de Información en Educación) señala en su estudio relativo a las diferencias de resultados en el ámbito educativo que en los países europeos se sigue dando un trato sexista en muchos libros de texto. Entre otras cuestiones este estudio revela que los libros de texto y materiales:

- No respetan el lenguaje inclusivo.
- No representan a mujeres y hombres de forma equilibrada y los personajes principales son en su mayoría masculinos.
- Casi siempre representan a las mujeres en trabajos típicamente femeninos y generalmente se las excluye de las esferas políticas e intelectuales.
- Ofrecen una imagen estereotipada de hombres y mujeres y son escasos los que intentan hacer frente a los estereotipos o equilibrar la representación de mujeres y hombres.

JUNAK



Literatura Random House
Lengua: Castellano
Año edición: 2015

Chimamanda Ngozi Adichie, nos habla en este libro, desde su doble condición de mujer y africana, de lo que significa ser feminista en el siglo XXI. Con humor e inteligencia y un estilo directo basado en experiencias personales, esta carismática autora Nigeriana rompe con los es-

tereotipos acerca del feminismo, construye un discurso ético a favor de los derechos de las mujeres y apunta ideas para hacer de este mundo un lugar más justo.

En Suecia se ha acordado incluir este libro en el temario escolar.

Todo el alumnado del curso equivalente a 4º de la E.S.O, recibirá un ejemplar, y el profesorado unas guías para su análisis en clase.

